


BALIOA

Gure proiektuan proposatzen dugun balioa honako hau da: kirola egiteko informazio gehiago izatea, kokatuak gauden lekua kontuan izanik, hau da, gauden lekuan gaudela inguruan praktika ditzazkegun kirol guztiei buruzko informazioa ahalbidetuko diegu gure bezeroei.

Kirola praktikatzeko orduan, ideia falta izan ohi da askotan hau egiterakoan atzera pauso bat ematera behartzen gaituen arazoa eta guk hau aldatuko dugu. Honekin bizimodu osasuntsuago bat izatera bultzatuko dugu jendea, kirola ardatz moduan hartuz.



Horrez gain, jakinda askotan jendea kanpora bizitzera joaten dela edo bidaiatzen duela, norberarena ez den herri batean egotean, aplikazioarekin zure gogoko kirola praktikatzeko tokiak klik bakar batekin aurkitu ahal izango dituzu. Izan ere, gure aplikazio hau, bere ubikazioaren arabera eguneratuko da. Horrela erosotasun handia izango dugu kirola praktikatzeko orduan.